



UDALBURUA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

**AIARAKO UDALAK 2019ko OTSAILAREN 21ean
EGINIKO BILKURAREN AKTA**

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera
jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Josu Artetxe Arana jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretziako otsailaren hogeita batean, hemeretziak eta bost direnean, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

EZ DA BERTARATU:

Lauren Uria Peña jn.

IDAZKARIA:

M^a. del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDAKo gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko urtarrilaren 24an eginiko ohiko bilkuraren akta.- Jarraian, Udalbatzari 2019ko urtarrilaren 24an egindako ohiko bilkuraren aktaren berri eman zaio.

Ez du inork hitz egin, eta, beraz, akta hori aho batez onartu da .

2.- Aiarako elkarteei kultura-, kirol- eta gizarte-arloko dirulaguntzak emateko oinarriak.- Jarraian, 2019. urtean kultura-, kirol- eta gizarte-arloko dirulaguntzak emateko oinarriak idatzi izanaren berri eman zaio Udalbatzari, eta Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak aldeko txostena egin du 2019ko otsailaren 12ko bilkuran. Honako hau da testua:

"2019. URTEAN KULTURA-, KIROL- ETA GIZARTE-ARLOKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. ARTIKULUA.- OINARRIEN XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Aiarako Udalak 2019. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloko jarduerak, udal-programak osatzen dituztenak, egiteko dirulaguntzak emateko erabiliko duen prozedura arautzea. Dirulaguntza horien bitartez, interes publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak bultzatuko dira eta horri esker Udalak bere jardun-eremuetan dauzkan helburuak lortu ahal izango ditu.

Dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen Udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa; eta aplikatu daitezkeen legeria osagarria.

2.- ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA LERROAK, DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Eskatzaileek bi dirulaguntza lerrori heldu ahal izango diete:

1.- *Urteko dirulaguntza mantenurako eta gastu arruntetarako; dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, oinarri hauen arabera dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ehuneko 80 izango da.*

2.- *Urtean zehar egiten diren jarduera eta proiektuetarako dirulaguntza; dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, oinarri hauen arabera dirulaguntza jaso dezaketen eta 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte sortu diren gastuen ehuneko 80 izango da.*

Dirulaguntza lerro hauek bi arlotan banaka daitezke: Gizarte Ekintza-Kultura, batetik, eta Kirol Ekintza, bestetik; dirulaguntzen kontzeptuak geroago zehaztuko dira.

3. ARTIKULUA.- AURREKONTU-ZUZKIDURA.

2019rako luzatutako Udalaren aurrekontuko 330.481.004 partidaren kontura egingo da gastua.

Partida horren gehieneko kreditua, eta, beraz, dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko aurrekontu-zuzkidura 35.000,00 euro da.

4. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK.

Honako hau arautzen da oinarri hauetan:

4.1- MANTENURAKO ETA GASTU ARRUNTETARAKO URTEKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA:

Diruz lagunduko dira mantenuko gastu arruntak.

Elkarte guztiei gastu arruntetarako emandako dirulaguntzek ezin izango dute aurrekontu-partidaren ehuneko 25 gainditu, eta, era berean, elkarteek ezin izango dute 1.000,00 euro baino gehiago eskatu jarraian zehaztu diren kontzeptu guztiengatik:

- Lokalaren garbiketa-, konponketa- eta zaintze-lanak.*
- Ekipamendua edo materiala eskuratzea; lotura zuzena izan behar dute elkarteak burututako jarduerarekin. Ekipamendua edo altzariak erosiz gero, elkarteak ezin izango du kontzeptu hori dela-eta laguntzarik eskatu deialdi honen hurrengo lau urteetan.*
- Aseguruak, salbu jarduera bat antolatzeko kontratatzen direnak; halakoetan, jardueretarako dirulaguntzen lerrotik eskatu ahal izango da.*
- Lehiaketarako federazio fitxen gastuak; kirol elkarten kasuan, Aiaran erroldaturiko pertsona eta elkarteko die bakoitzeko.*

4.2.- URTEAN ZEHAR JARDUERAK ETA PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA.

Elkarteek, 2019an jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eskatu ditzakete.

Dirulaguntza herritar ororentzako diren eta ohiko bitartekoetan (Udalaren whatsapp, Udalaren web orria eta kartelak) publizitatea egingo zaien jardueretarako bakarrik izango da.

Dirulaguntza jasotzeko, ezinbesteko betekizuna izango da eskatutako informazio guztia eranstea, bai eta diruz lagundutako jarduerak iragartzeko kartelen ale bana ere, zeinek irizpide hauek bete beharko baitituzte:

- Udalaren logotipoa.*
- Euskara txertatzeko bete beharreko hizkuntza-irizpideak (nahitaez bete beharreko irizpideak doaz honekin batera).*

– Genero-ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun-irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).

4.2.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira ondoko kontzeptu hauengatik sortzen direnak:

Kirol-elkarteak	Gizarte- eta kultura-elkarteak
<p>Elkartearen beraren jarduera kolektibo bati loturiko garraioa. Garraio-gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:</p> <ul style="list-style-type: none">– <u>Autobusa kontratatzearen gastuak.</u>– <u>Garraio publikoaren gastuak:</u> autobusa, tren, taxia eta abar.– <u>Gizarte-, kultura- eta kirol-ekitaldietan parte hartzeko elkarteak, gutxienez lau lagun eramateko, auto partikularretan egingo dituzten lekualdaketek eragindako gastuak.</u> <p>Elkartearen sozietate egoitza hartuko da bidaiaren irteeraren erreferentzia gisa, eta gehienez ere kilometroko 0,29 euroko gastua hartuko da kontuan.</p>	
<p>Kirol-txapelketak, erakustaldiak eta mendi-irteerak antolatzea, barnean hartuta jarduera gauzatzeko beharrezko diren antolaketa-gastuak eta ekitaldi horietan emango diren sariak. Baldin jarduera horietan sariak eta garaikurrak ematen badira, horietarako eman daitekeen diru-laguntza ez da urtean 1.800,00 euro baino gehiago izango.</p>	<p>Gizarte- eta kultura-jarduerak (emanaldiak, antzezpenak, hitzaldiak, arte- eta kultura-lehiaketak eta elkartearen jarduerari loturiko prestakuntza-ikastaroak eta -tailerrak).</p>
<p>Haurrentzako animazio-jarduerak.</p> <p>Txokolatadak, lunchak: betiere diruz lagundu daitezkeen jardueraren bati lotuta badaude.</p> <p>Lunch tradizionalak: gehienez ere, 100,00 euro. Lunch osasungarriak: gehienez ere, 150,00 euro. Lunch osasungarritzat joko dira edari gasdun, azukredun eta alkoholdunak ez daukatena.</p>	
<p>Jai tradizionalak antolatzea (Olentzero, Errege Magoen desfilea eta beste batzuk).</p>	
<p>Lanen edizioa nola formatu digitalean hala paperean, Aiara ardatz nagusi dutela: gehienez ere, 500,00 euro, baldin eta lan hori udalerrian zabaltzeko konpromisoa badago eta irabazi asmorik ez badago. Kasuan kasuko batzordean balioetsiko da gaia edo planteamendua oinarri hauen filosofiari lotzen zaizkion ala ez.</p>	
<p>Haurtzaindegi-zerbitzuak, elkarteak gauzatutako jarduera bati lotuak.</p>	

4.3.- DIRULAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN GASTUAK.

Ez dira diruz lagunduko honako jarduera hauek:

Jarduera piroteknikoak.

Ez da dirulaguntzarik emango lunch, askari, bazkari eta antzekoetarako, ez badira antolatzen oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, diruz lagungarri den jarduera baten inguruan.

Eguberrietako ekitaldietan egiten diren opariak ez dira diruz lagunduko.

Dietak.

Sariak eskudirutan.

5. ARTIKULUA.- ESKATZAILEAK.

5.1.- Irabazteko xederik gabeko edozein elkarte edo partikularrek eskatu ahal izango du dirulaguntza, 2019. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan programa edo jardueraren bat sustatu edo gauzatu nahi badu, Aiarako udalerrri osoarentzat onura publikoa edo gizarte-interesa duten jarduerak sustatze aldera, eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

Sozietatearen helbidea edo egoitza Aiaran egotea, arau orokor gisa.

Pertsona juridikoa bada, haren estatutuek beren-beregi jasotzea haren xedea interes orokorrekoa eta herriaren zerbitzurakoa dela edo irabazteko xederik gabe sortu dela.

Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Jarduera-eremua Aiaran izatea, salbu eta banaka aztertuko diren salbuespenak.

Aurretik emandako dirulaguntzak itzularazteko prozeduraren baten hasiera eragin duten kausetan sartuta ez egotea.

5.2.- Etxaurren ikastolako gurasoen elkarteak eta Aiarako irakaskuntza-zentroak ere onuradun izan daitezke, baldin eta deialdi honetan ezarritako xedetarako erabiltzen badituzte dirulaguntzak, eta diruz lagundutako jarduerak eskola eta irakaskuntza esparrutik kanpokoak badira.

5.3.- Administrazio batzarrek ere dirulaguntza jaso ahal izango dute Olentzero eta Erregeen kabalgata egiteko, baldin eta bat etortzen badira deialdiak dituen xedeekin.

6. ARTIKULUA.- ESKAERAK.

6.1.- Eskaerak aurkezteko epea: hilabete, oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik hasita.

6.2.- Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira Udalaren webgunean (www.aiarakoudala.eus).

Eskaerak Aiarako udaletxean ere jaso eta aurkeztu ahal izango dira.

6.3.- Aurkeztu beharreko agiriak:

6.3.1.- Pertsona fisikoek aurkezten dituzten eskaerentarako:

- NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada).
- Zinpeko aitortpena, beste erakunde publiko edo pribaturen bati elkarteak iraunarazteko edo jarduerak bera egiteko beste dirulaguntzaren bat eskatu edo jaso izanari buruzkoa.
- Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordezkari ziurtagiria eskaeraren administrazio aginpidedunari, hain zuzen, jasotzen duena eskatzaileei dagokienez, egunean dituztela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (4. eranskina).

6.3.2.- Elkarteek aurkezten dituzten eskaerentarako:

- Eskaera bere izenean edo elkartearen izenean sinatzen duenaren NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada).
- Elkartearen IFZren fotokopia, dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada.
- Elkarteak Aiarako Elkartearen Udala Erregistroan alta emanda ez badago, izena eman beharko du dirulaguntza eskatzen duenean, eta horretarako agiri hauek aurkeztu behar ditu: erakundearen estatutuen fotokopia, legez eraturik eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan erregistraturik dagoela egiaztatzeko agiria, eta IFZren egiaztatzea.

6.4.- Eskaera:

- **1. eranskina** aurkeztu beharko da (behar bezala beteta eta sinatuta).
- **Mantenurako eta gastu arruntetarako urteko dirulaguntza eskatzeko, 2. eranskina** ere aurkeztu beharko dute (behar bezala beteta eta sinatuta).
- **Jarduerak egiteko dirulaguntza eskatzeko, 3. eta 3.1. eranskinak** ere aurkeztu beharko dituzte. Urtean zehar zenbat jarduerak edo programa egin nahi diren, 3.1. eranskin horren hainbat ale aurkeztuko dira, behar bezala izenpetuta.

4. eranskina aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Eskaera guztietan kontuan hartu beharko da, halaber, dirulaguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen diren finantzabideek, guztira, ezingo dutela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

Udalak egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko.

Eskaera behar bezala eginda ez badago edo aipatutako datu nahiz agirietako baten bat falta bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun baliioduneko epean akatsak zuzen ditzan, eta ohartaraziko zaio, hori egin ezean, besterik gabe eskaera artxibatu egingo dela.

Salbuespen gisa, xedatutako epetik kanpo aurkeztutako eskaerei dirulaguntzak eman ahal izango zaizkie, baldin eta horretarako dirurik badago, eta Aiarako Udalaren helburu publikoetarako interesekotzat jotzen bada dena delako jarduera edo programa, eta aurretik Kultura arloko Informazio Batzordeak aldeko txostena ematen badu.

7. ARTIKULUA.- PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK DIRULAGUNTZAREN BERRI EMATEA.

Dirulaguntza ematen zaien pertsona edo erakunde guztiek udal-finantzaketa horren berri eman beharko dute, Udalaren logotipoa jarritz egiten dituzten material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), hedabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetako iragarkietan. Horretarako, Aiarako Udalak udal-logotipoa emango die pertsona edo erakunde interesdunei.

Gainera, euskararen erabileraren udal-ordenantzari jarraituz erabiliko dira bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitaterako egiten diren kartel, testu eta agirietan.

Nahitaez sartu beharko dira, halaber, genero-ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun-irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).

Aiarako Udalaren dirulaguntzaz egiten diren jarduera guztien berri zabalduko da jarduera hasi baino lehen, interesa duten guztiek parte hartu ahal izan dezaten. Halaber, jarduera egin baino zazpi egun lehenago Udalari jakinarazi beharko zaio, egokitzat jotzen dituen hedabideetatik jardueraren berri eman dadin.

8. ARTIKULUA.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Hauek dira pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak:

- Dirulaguntzak ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo jarrera izatea.*
- Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.*
- Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen-jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol-organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.*
- Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana. Dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.*
- Dirulaguntza ematen duen ebazpena baino lehenago, Udalarekiko zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela frogatzea.*
- Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.*

- Aiarako Udalaren euskarari buruzko ordenantzan ezarrita dagoena betetzea, programa edo jarduera iragartzean nahiz gauzatzean.
- Genero-berdintasunari buruzko araudia betetzea.

9. ARTIKULUA.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK.

Dirulaguntzak emateko kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- Proiektuaren hedadura (jarduera egiteak zenbat pertsonari ekarriko dion onura).
- Entitate eskatzaileak bere jarduera eremuan erakutsi duen jarraitzeko gaitasuna eta egonkortasuna.
- Jarduerak euskaraz egitea.
- Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko zailtasuna izatea; eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak, eskatutako zenbatekoaren aldean; eta baliabide eta finantzabideen bila egiten duen ahalegina.
- Programaren eta proiektatutako jardueren bideragarritasuna.
- Aurkeztutako balantze ekonomikoa.
- Berdintasuna sustatzen duten jarduerak.

10. ARTIKULUA.- EBAZTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA.

Alkate-udalbruruak izango du eskumena dirulaguntza emateko, dagokion informazio-batzordeak txostena eman ondoren.

11. ARTIKULUA.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

Eskaerak ebazteko eta pertsona edo erakunde eskatzaileei ebazpena jakinarazteko epea lau hilabetekoa da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita. Dirulaguntza emateko ebazpenak nahiz dirulaguntza ukatzekoak, denak jakinaraziko dira.

12. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA.

12.1. Justifikatzeko epea:

Pertsona edo erakunde eskatzaile guztiak 2020ko urtarrilaren 31rako aurkeztu beharko dute dirulaguntzaren justifikazioa. Epe horretan aurkeztu beharko dira dirulaguntza-lerroei dagozkien faktura guztiak eta eranskin egokiak, behar bezala beteta eta sinatuta.

12.2. Dirulaguntzen justifikazioa:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez Udalak emandako diru kopurua bakarrik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, xedatzen duen moduan.

12.3. Justifikatzeko sistema:

Justifikazioan honako hauek bildu beharko dira:

- 5. eranskina aurkeztu beharko dute pertsona edo elkarte eskatzaile guztiak.
- 6. eranskina aurkeztu beharko dute gastu arruntak eskatu dituzten elkarteek.

- 7. eranskina aurkeztu beharko dute pertsona edo elkarte eskatzaileek. Egindako jarduera bakoitzerako bat aurkeztu beharko da, behar bezala beteta.
- Kilometroak justifikatzeko: 8. eranskina aurkeztu beharko dute garraio-gastuak eskatu dituzten pertsona edo elkarte guztiek.
 - a) Antolatzailea badago: elkarteak ekitaldira joan dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da, eta elkarteak berak egindako beste agiri bat, ekitaldira joan diren pertsona guztien zerrenda jasotzen duena (izen-abizenak, NANA eta bertaratutakoen sinadura agertu beharko dira).
 - b) Antolatzailerik ez badago: elkarteak berak egindako agiri bat aurkeztu beharko da, ekitaldira joan diren pertsona guztien zerrenda jasotzen duena (izen-abizenak, NANA eta bertaratutakoen sinadura agertu beharko dira).
- Lunch osasungarriak justifikatzeko: luncherako erositako gaiak banan-banan jasotzen dituen faktura edo tiketa aurkeztu beharko da. Bestela, luncha tradizionala dela ulertuko da.
- Egindako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopia konpulsatuak. Federazio-fitxen kasuan, pertsonen zerrenda, dirulaguntza zeinentzat eskatu den adierazten duena.
- Ordainagiriak (fakturaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa izango da kasuan kasuko merkataritza-establezimenduak edo enpresak kobratu edo ordaindu izanaren zigilu bat jartzea eta, horren gainean, eskuz egindako sinadura; edo, bestela, enpresaburuak sinatutako idazkia, identifikatzen duen fakturaren ordainketa eskudirutan jaso duela adierazten duena). Baldin ordainketa banku-transferentzia bidez egiten bada, egiaztagiria erantsi beharko da (nahitaez banku-transferentzia bidez egin beharrekoak dira 2.500,00 eurotik gorako ordainketak). Ordainagiriak aurkeztetik salbuetsiko dira 100 eurotik beherako fakturak eta, halakoetan, elkarteko idazkariak faktura hori ordaindu dela adierazteko egingo duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- *Jardueraren berri emateko erabilitako kartelaren, liburuxkaren... ale bat.*
- Aiarako Udalaren dirulaguntza jaso duen elkarte batek, dirulaguntzaren ordainketaren ondoren jakiten badu jarduera horretarako beste erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, berehala aurkeztu beharko du udaletxean erakunde horren aitortpen bat eta dirulaguntzaren zenbatekoa, behar bezala sinatuta, diruz lagundutakoaren soberakina Udal Diruzaintzan sar dadin.
- Aurkeztutako fakturen guztirako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako proiektu zein jarduera burutzen ez bada, onuradunak horren berri emango dio Udalari, gainerako dirua Udal Diruzaintzan sartzeko edo, bestela, emandako dirulaguntza murrizteko.

12.4. Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ez ematea:

Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ematen ez bada, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira berandutze-interesekin batera, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako eran.

13. ARTIKULUA.- ORDAINKETA.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 80, dirulaguntza ematea ebatzen den unean.
- Gainerako dirulaguntza, aurreko puntuan aipatutako justifikazioa aurkeztutakoan.
-

14. ARTIKULUA.- BALDINTZAK EZ BETETZEA, ETA DIRULAGUNTZA ITZULARAZTEKO PROZEDURA.

Onuradunak dirulaguntza jasotzeko oinarri hauetan edo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da dirulaguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

15. ARTIKULUA.- GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA.

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txostena eman eta gero.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Aiarako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da”.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez adostu dute, ohiko bozketaren bitartez:

LEHENENGOA.- 2019. urtean kultura-, kirol- eta gizarte-arloko dirulaguntzak emateko deialdia onestea.

BIGARRENA.- Aurrez transkribaturiko 2019. urtean kultura-, kirol- eta gizarte-arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onestea.

HIRUGARRENA.- Deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Oinarriei publizitatea ematea, ALHAOn, udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web orrian testu osoaren iragarkia jarrita

3.- Luzatzea, bidezkoa bada, Aiarako “Berbalagun Gurasolagun” programaren dinamizazio-zerbitzuaren kontratua.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, 2017ko otsailaren 7ko “Aiarako Berbalagun-Gurasolagun programaren dinamizazio-zerbitzuaren kontratu”-ko bigarren klausulan ezarritakoari dagokionez, udal honek EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-AEK enpresarekin izenpetua duena, kontratuaren iraupen-epa bi urtekoa dela, gehienez bi urteko luzapenarekin, betiere bi aldeek hori erabakitzen badute; horrenbestez, luzapenari dagokion erabaki bat hartu beharko da.

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak gai honen inguruko aldeko txostena egin zuen 2019ko otsailaren 12ko bilkuran.

Ikusi da aipaturiko kontratuaren esleipena –prozedura negoziatu bidezkoa eta publizitaterik gabea– zuzendu zuten Baldintza Ekonomiko-Administratiboan eta Baldintza Teknikoen Plegua; kontratuaren bigarren klausulak urteroko luzapena zehazten du, gehienez beste bi (2) urtez.

Ikusi da Aiarako Kuadrillako euskara-teknikariaren txostena, espedientean jaso.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez, ohiko bozketaren bidez, erabaki da 2017ko otsailaren 7ko “Aiarako Berbalagun-Gurasolagun programaren dinamizazio-zerbitzuaren kontratua” urtebete gehiago luzatzea, udal honek EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-AEK enpresarekin izenpetua duena.

4.- Araba Euskaraz Elkartea. 2019ko dirulaguntza-eskaera. Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko otsailaren 15eko Alkatezaren erabaki-proposamena. Honela dio:

"OSOKO BILKURARAKO ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- ARABA EUSKARAZ ELKARTEAK aurkeztutako eskaera, “Araba Euskaraz 2019” jaialdirako laguntza ekonomikoa eskatuz.

IKUSI DA.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikulua dirulaguntzak zuzenean ematea ahalbidetzen duela, aurrekontuetan izendatuta aurreikusten direnentzat, betiere, aurrekontu-zuzkidura eta mozkin aurrekontuko gastuen egoera-orrian zehaztuta agertzen bada.

AINTZAT HARTU DA.- Kreditu nahikoa eta egokia dagoela 2018ra luzatutako aurrekontuko 335.481.019 kontu-sailean.

Azaldutako guztiagatik, Aiarako Udalbatza Osoak honako ERABAKIA hartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- Aitortzea ARABA ESUKARAZ ELKARTEAri, IFK G-01400324 zenbakiarekin, 300,00 euroko dirulaguntza zuzena "Araba Euskaraz 2019" jaialdiko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Onestea 2018ra luzatutako aurrekontuko 335.481.019 kontu-saileko zordunketari dagokion gastua.

Hirugarrena.- Jakinaraztea ARABA EUSKARAZ ELKARTEAri aipaturiko dirulaguntza abonatzeko honako egiaztagiria hauek aurkeztu behar dituela:

- Gauzatutako jardueren memoria.
- Aipaturiko jardueren gastu eta diru-sarrera ororen justifikazio-memoria ekonomikoa, beste erakunde edo organismoetatik jasotako beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatu bat ere gehituz.
- Udalak emandako kantiitatearen zenbateko bereko edo gehiagoko ordainketen egiaztagiria eta justifikazio-fakturak.

Dokumentazio oro 2019ko abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu behar da. Horrela egin ezean, dirulaguntza itzultzeari ekingo zaio.

Laugarrena.- Erabaki hau eskatzaileari jakinaraztea.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta.*"

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2019ko otsailaren 12ko bilkuran aipaturiko dirulaguntza ematearen aldeko txostena egin zuen.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du, eta adierazi du, batzordean egin zuten modu berean, AIARA BATUZ taldeak dirulaguntza honen aurkako botoa emango duela: "Araba euskaraz 2019" euskara sustatzeko festa bat da, eta ongi deritzo horri, baina ikastolei bideratuta dago eta hauek ez dira ikastetxe publikoak, eta hezkuntza-sistema publikoan ere badaude euskarazko prestakuntzarako sarbide-aukerak.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) azaldu du dirulaguntzaren aldeko botoa emango dutela, Ikastolek ikastetxe kontzertatuetan ikasten duten familia asko ordezkatzeko baitituzte, nahiz eta, era berean, hezkuntzaren ardatza hezkuntza publikoa denaren ideiarekin eusten dioten.

Gentza Alamillo Udaela alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du kontuan hartzen dutela Ikastolek egiten duten lana ere, hezkuntza publikoaren lehentasuna kaltetu gabe.

Parte-hartzeak amaitu dira, eta ERABAKI DA EAJ-PNV taldeko partaideen aldeko bost botorekin, EH-BILDU taldeko ordezkarien hiru botorekin eta AIARA BATUZ taldeko bi kideen aurkako botoekin, transkribatu den erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

5.- Herri Urrats. 2019ko dirulaguntza-eskaera.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko otsailaren 15eko Alkatetzaren erabaki-proposamena. Honela dio:

"OSOKO BILKURARAKO ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- MAIALEN ETCHEMENDI ETA DANIEL LAXAGUEk, "Herri Urrats"-eko presidente bezala, aurkeztutako eskaera, "Herri Urrats 2019" jaialdirako laguntza ekonomikoa eskatuz.

IKUSI DA.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikulua dirulaguntzak zuzenean ematea ahalbidetzen duela, aurrekontuetan izendatuta aurreikusten direnentzat, beti ere, aurrekontu-zuzkidura eta mozkin aurrekontuko gastuen egoera-orrian zehaztuta agertzen badira.

AINTZAT HARTU DA.- Kreditu nahikoa eta egokia dagoela 2018ra luzatutako aurrekontuko 335.481.018 kontu-sailean.

Azaldutako guztiagatik, Aiarako Udalbatza Osoak honako ERABAKIA hartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- Aitortzea MAIALEN ETCHEMENDI ETA DANIEL LAXAGUEri, “Herri Urrats”-en ordezkari gisa, 300,00 euroko diru-laguntza zuzena “Herri Urrats 2019” jaialdiko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Onestea 2018ra luzatutako aurrekontuko 335.481.018 kontu-saileko zordunketari dagokion gastua.

Hirugarrena.- Jakinaraztea “Herri Urrats 2019”-ko antolatzaileei aipaturiko dirulaguntza jasotzeko honako egiaztagiri hauek aurkeztu behar dituela:

- Gauzatutako jardueren memoria.
- Aipaturiko jardueren gastu eta diru-sarrera ororen justifikazio-memoria ekonomikoa, beste erakunde edo organismotatik jasotako beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat ere gehituz.
- Udalak emandako kantitatearen zenbateko bera edo gehiagoko ordainketen egiaztagiriak eta justifikazio-fakturak.
- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko ordainketak egunean izatearen egiaztagiria edo Aiarako Udalari datu hauek egiaztatzeko baimena ematen dion dokumentua.

Dokumentazio oro 2019ko abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko da. Horrela egin ezean,, dirulaguntza itzultzeari ekingo zaio.

Laugarrena.- Erabalo hau eskatzaileari jakinaraztea.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta."

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2019ko otsailaren 12ko bilkuran aipaturiko dirulaguntza ematearen aldeko txostena egin zuen.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta adierazi du kasu honetan ere ikastolei dagokien festa bat dela, baina Iparralden, eta hortaz, dirulaguntza ematearen aldeko botoa emango dutela, lurralde horretan oraindik ez baitago ikastetxe publikoetan euskaraz ikasteko aukerarik.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta ohiko bozketaren bitartez, aho batez ERABAKI transkribatu den erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

6.- EHIGE: Euskal Eskola Publikoaren Jaia. 2019ko dirulaguntza-eskaera. Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko otsailaren 15eko Alkatezaren erabaki-proposamena. Honela dio:

"OSOKO BILKURARAKO ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- EHIGE GURASOEN ELKARTEA aurkeztutako eskaera, 2019ko ekainaren 2an ospatuko den “Euskal Eskola Publikoaren 28. festa”-rako laguntza ekonomikoa eskatuz.

IKUSI DA.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikulua dirulaguntzak zuzenean ematea ahalbidetzen duela, aurrekontuetan izendatuta aurreikusten direnentzat, betiere, aurrekontu-zuzkidura eta mozkin aurrekontuko gastuen egoera-orrian zehaztuta agertzekotan.

AINTZAT HARTU DA.- Kreditu nahikoa eta egokia dagoela 2018ra luzatutako aurrekontuko 326.481.011 kontu-sailean.

Azaldutako guztiagatik, Aiarako Udalbatza Osoak honako ERABAKIA hartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- Aitortzea EHIGE GURASOEN ELKARTEAri, 500,00 euroko diru-laguntza zuzena “Euskal Eskola Publikoaren 28. festa”-ko gastuak finantzatzeko.

Bigarrena.- Onestea 2018ra luzatutako aurrekontuko 326.481.011 kontu-saileko zordunketari dagokion gastua.

Hirugarrena.- Jakinaraztea EHIGE GURASOEN ELKARTEari aipaturiko dirulaguntza jasotzeko honako egiaztagiria hauek aurkeztu behar dituela:

- Gauzatutako jardueren memoria.
- Aipaturiko jardueren gastu eta diru-sarrera ororen justifikazio-memoria ekonomikoa, beste erakunde edo organismotatik jasotako beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatu bat ere gehituz.
- Udalak emandako kantitatearen zenbateko bera edo gehiagoko ordainketen egiaztagiria eta justifikazio-fakturak.
- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko ordainketak egunean izatearen egiaztagiria edo Aiarako Udalari datu hauek egiaztatze baimena ematen dion dokumentua.

Dokumentazio oro 2019ko abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko da. Horrela egin ezean, dirulaguntza itzultzeari ekingo zaio.

Laugarrena.- Erabaki hau eskatzaileari jakinaraztea.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta."

Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak, 2019ko otsailaren 12ko bilkuran aipaturiko dirulaguntza ematearen aldeko txostena egin zuen.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta azaldu du harrigarria eta kritikagarria iruditzen zaiola Eusko Jaurlaritzak zazpi lege bakar batean tramitatu izana, horrela zeharka sartuz euskal eskola publikoen finantzaketan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du esanez eurek osoko bilkuran hartutako erabakiak babesten dituztela, eta erabilitako figura juridikoa guztiz legala dela eta fidagarritasun juridikoa duela.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du sinesgarritasun juridikoa existitzen dela, baina kexa orokorra ere garrantzitsua dela; horregatik uste du kritikagarria dela zazpi lege bakar batean biltzea eta hausnartu egin behar litzatekela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ohiko bozketaren bitartez, aho batez ERABAKI transkribatu den erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

7.- Udal Izapideen Eskuliburuaren proiektua.- Jarraian, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Udal Izapideen Eskuliburuaren proiektuaren berri eman dio Udalbatzari, Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak, 2019ko otsailaren 12ko bilkuran, eginiko aldeko txostenarekin.

Alkate jaunak adierazi du, Udalbatzako bi funtzionario eta bera bertaratu diren prestakuntza-saioen ondoren osatu dela; azaldu du, zinegotzietan igorri zaien dokumentua dela emaitza, eta horrekin, udalerriko bizilagunek izapide bakoitzari dagokion informazioa izatea eta Udaleko langileek ezagutzea dela xedea, izapideak bateratu eta ordezkapenak errazteko, gertatuko balira. Aprobetxatuz, gehitu du, azterketa orokor bat egin dela genero-ikuspegitik hizkera ez-sexistari dagokionez. Adierazi du behin onetsita, Udalaren web orrira igotzen joango dela pixkanaka, denek ikus dezaten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ohiko bozketaren bitartez, aho batez ERABAKI DA Udal Izapideen Eskuliburua onestea.

8.- 2018ko Udal Aurrekontuaren Likidazioaren kontu ematea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, 2019/62 Alkatetza Dekretuan dagoen akatsa 2019ko otsailaren 7ko 2019/65 Dekretuaren bitartez zuzendu ondoren, 2018ko ekitaldiko Udalbatza honen Aurrekontuaren Likidazioa onetsi dela. Honela dio:

"2019/62 Alkatetza Dekretuan akatsa antzemandan, bere zuzenketari ekin zaio, eta honela dio testuak:

2018ko ekitaldiari dagokion Erakunde honen Aurrekontuaren Likidazioa osatzen duten dokumentuak aztertu dira, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 47. artikuluan aurreikusitakoarekin bat; eta organo kontu-hartzaileak aipaturiko Foru Arauaren 49.3. artikularekin bat, egindako txostena ikusi da.

Alkatetza-Udalburutza honek, **EBAZTEN DU**:

Lehenengoa.- 2018ko ekitaldiko Udalbatza honen Aurrekontuaren Likidazioa onestea. Honako hau da laburpena:

2018KO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA	Euroak
(+) Ordaindutako eskubide garbiak	2.389.525,41
(-) Onartutako obligazio garbiak	2.341.450,80
(=) AURREKONTU ARRUNT GORDINAREN EMAITZA	48.074,61
(+) Finantza-gastuak diruzaintza soberakinarekin	272.207,42
(-) Gehiegizko finantzaketaren batura 18	27.458,12
(+) Finantzaketa-eskasien batura 18	0,00
(+) Gehiegizko finantzaketaren batura 17	27.458,12
(-) Finantzaketa-eskasien batura	0,00
(=) DOITUTAKO AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA	320.282,03
(+) Ordaindu gabeko obligazio ezeztatuak	8.497,49
(-) Kobratu gabeko eskubide ezeztatuak	707,49
(=) AURREKONTU ITXIEN EMAITZA	7.790,00
(+) DOITUTAKO AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA	320.282,03
(+) AURREKONTU ITXIEN EMAITZA	7.790,00
(=) 2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	328.072,03

2018ko EKITALDIKO DIRUZAINZAKO SOBERAKINA	Euroak
(+) Diruzaintzan eskudirutan dauden izakinak	786.532,26
(+) Aurrekontu arruntetik kobratzeke dauden eskubideak	278.651,06
(+) Aurrekontu itxitik kobratzeke dauden eskubideak	122.463,66
(+) Aurrekontuz kanpo kobratzeke dauden eskubideak	2.115,64
(-) Behin betiko aplikazioa falta zaien egindako kobrantzak	95,53
Kobratzeke dauden eskubideak guztira	403.134,83
(-) Aurrekontu arruntetik ordaintzeke dauden obligazioak	250.660,21
(-) Aurrekontu itxitik ordaintzeke dauden obligazioak	26.812,82
(-) Aurrekontuz kanpo ordaintzeke dauden obligazioak	177.059,96
Ordaintzeke dauden obligazioak guztira	454.532,99
(=) DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GORDINA	735.134,10
(-) Kobrantza zaila edo zalantzakoa duten eskubideak	119.412,32
(=) DIRUZAINZAKO SOBERAKIN LIKIDOA	615.721,78
(-) FINANTZAKETA LOTUKO GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	27.458,12
(=) GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO SOBERAKINA	588.263,66

Bigarrena.- Udabatzak Osoari jakinaraztea Kontu Hartzailtzaren txostena, gastu-arauaren eta likidazioa onesten duen dekretu honen gainekoa.

Hirugarrena.- Onetsitako likidazioaren kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Ekonomia Ministerioari, hilabeteko epean.”

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta galdetu du Diruzaintzako soberakin likidoak 500.000, 00 euro gaingitzen dituzenez, 231.057,32 € lehen kreditu gehigarrian erabili behar diren arren, gainerakoa erabiltzeko aurreikuspenik ote dagoen, eta gainerako taldeekin adostu behar den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak erantzun dio, gaurko egunez, soberakinaren erabilerarako aurreikuspen bakarra talde guztiak ados dauden Barrena kaleko obra dela. Gehitu du, agian, obra txikietarako erabili beharko litzatekeela zerbait, baina, hala eta guztiz ere, erabilerarekin zuhurra izan behar dela uste du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- 2019ko kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 1. espedientea.- Jarraian, idazkari kontu-hartzailearen 2019ko otsailaren 7ko txostenaren berri eman zaio Udalbatzari. Honela dio:

"IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA, KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AINTZATESPENAREN 1/2019 ESPEDIENTEARI DAGOKIONEZ.

Gaia: Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren espedientea. 1/19 zenbakia. 2019ko aurrekontu-ekitaldia.

Aiarako Udaleko idazkari kontu-hartzailearen karguari datxezkion atribuzioei jarraikiz, eta estatu-mailako gaikuntza duten Funtzionarioen Araubide Juridikoko Araudia onesten duen irailaren 18ko 1174/87 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, honako IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA igorri da aurreko ekitaldietako fakturen judizioz kanpoko aintzatespenaren inguruan:

1.- AURREKARIAK

2019ko urtarrilean Aiala Aceros SL enpresaren dei bat jasotzen da eta ordaindu gabe dagoen 2018ko maiatzaren 24ko faktura bategatik galdetzen dute, Kontabilitate Departamentutik jakinaraziz, egiaztapenak egin ondoren, ez dela aipaturiko fakturaren ordainketarik egin berau ez delako Udalean jaso (2019ko otsailaren 1eko sarrera-data dago jasota). Aipaturiko faktura AIALA ACEROS SL enpresaren 2018ko maiatzaren 24ko 201812169 zenbakiko faktura da, 761,09 eurokoa (% 21eko BEZa barne). Dagozkion udal-zerbitzuekin berretsi da faktura hori zuzena dela eta egokia dela Udalaren izenean bidaltzea.

Halaber, 2019ko urtarrilaren 7ko sarrera-datarekin, EUSKALGINTZA BULEGOA I, SL enpresaren 2018ko abenduaren 31ko 12120 zenbakiko faktura jasotzen da, 441,25 eurokoa (% 21eko BEZa barne). Ondorioz, ez da zegokion ekitaldian aintzatetsia eta onartua izan, baina Udalari ematen zaion zerbitzu bat denez, gastua onartu eta betebeharrak ekonomikoa eta ordainketa aintzatetsi behar dira.

2.- OINARRI JURIDIKOAK

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 176.1 artikulua, Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena, hau ezartzen du: “1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituen kargura, soilik aurrekontu-ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen betebeharrak ezar daitezke”.

Halaber, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 26. artikulua, zeinaren bidez abenduaren 28ko 39/1998 Legearen seigarren tituluko lehenengo kapitulua garatzen baita, Toki-ogasunak arautzen dituen, hau ezartzen du aurrekontuei dagokienez:

“1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituen kargura, soilik aurrekontu-ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen betebeharrak ezar daitezke. (TOALren 157.1 artikulua).

2. Hala ere, aurreko atalean adierazitakoaz gain, horiek aitortzeko momentuan betebeharrak hauek aplikatuko zaizkie indarreko aurrekontu-kredituei:...

c) Errege Dekretu honen 60.2 artikulua erreferentzia egiten die aurreko ekitaldietatik datozen betebeharrei”.

Aipatutako Errege Dekretuaren 60.2 artikulua ezartzen du erakundearen Udaltzari dagokiola kredituen judizioz kanpoko onarpena egitea, aurrekontu-zuzkidurarik ez dagoenean, betiere.

Bestalde, azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 50.12 artikulua, zeinaren bidez erregulatzen baita Toki-erakundeen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua, beste funtzio batzuen artean, kredituak judizioz kanpo onartzeko eskumena ematen dio Udaltzari.

Aurreko guztia kontuan hartuz, idazkari kontu-hartzaile honek EBAZPEN-PROPOSAMENA/TXOSTENA egiten du, dagokion Batzordeari helaraziko zaiona, osoko bilkuran onartu aurretik:

1.- 1/2019 zenbakiko espedientea onartzea, bi faktura hauen kreditua judizioz kanpo onartzekoa, 2019. urtea baino urtebete lehenagoko faktura denez, ordainketa baimentzeko asmoz, horrela Udalaren aberaste bidegabea ekidinez.

➤ 2019ko maiatzaren 24ko 201812169 zk. faktura, AIALA ACEROS SL" enpresarena, 761,09 eurokoa (% 21eko BEZa barne); 2019ko luzatutako aurrekontuko 342.211000 kontu-sailaren kontura ordainduko da.

➤ 2018ko abenduaren 31ko 12120 zk. faktura, EUSKALGINTZA BULEGOA I, SL enpresarena, 441,25 eurokoa (% 21eko BEZa barne); 2019ko luzatutako aurrekontuko 335.227070 kontu-sailaren kontura ordainduko da.

Horren berri ematen dut, Arespalditzan.- Idazkari kontu-hartzailea.”

Aipatutako espedienteak Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimena eta Kontuetarako Informazio Batzordearen aldeko txostena jaso du 2019ko otsailaren 12an eginiko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez, ohiko bozketan erabaki du 1/2019 zk. espedientea onartzea ekitea, bi faktura hauen kreditua judizioz kanpo onartzekoa, 2019. urtea baino urtebete lehenagoko faktura denez, ordainketa baimentzeko asmoz, horrela Udalaren aberaste bidegabea ekidinez.

➤ 2019ko maiatzaren 24ko 201812169 zk. faktura, AIALA ACEROS SL enpresarena, 761, 09 eurokoa (% 21eko BEZa barne); 2019ko luzatutako aurrekontuko 342.211000 kontu-sailaren kontura ordainduko da.

➤ 2018ko abenduaren 31ko 12120 zk. faktura, EUSKALGINTZA BULEGOA I, SL enpresarena, 441,25 eurokoa (% 21eko BEZa barne); 2019ko luzatutako aurrekontuko 335.227070 kontu-sailaren kontura ordainduko

10.- 2019ko kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 2. espedientea.- Jarraian, alkate jaunak Udaltzari jakinarazi dio, presazko arrazoiengatik, 2018ko ekitaldiari dagokion faktura bat denez, Udaltzari osoan aztertuko dela kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 2/19 espedientea, 2019ko aurrekontu-ekitaldiari dagokiona, aurrez dagokion Informazio Batzordetik igaro gabe.

Jarraian, idazkari kontu-hartzailearen 2019ko otsailaren 15eko txostenaren berri eman zaio Udaltzari. Honela dio:

"IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA, KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AINTZATESPENAREN 2/2019 ESPEDIENTEARI DAGOKIONEZ.

Gaia: Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren espedientea. 2/19 zenbakia. 2019ko aurrekontu-ekitaldia.

Aiarako Udaleko idazkari kontu-hartzailearen karguari datxezkion atribuzioei jarraikiz, eta estatu-mailako gaikuntza duten Funtzionarioen Araubide Juridikoko Araudia onesten duen irailaren 18ko 1174/87 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, honako IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA igorri da, aurreko ekitaldietako fakturen judizioz kanpoko aintzatespenaren gainekoa:

1.- AURREKARIAK

2019ko otsailaren 4ko sarrera-datarekin, ongintzazko Fundación Aldau fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroko gastuen zerrenda aurkeztu du; bertan, besteren artean, KASAKU S. COOP.-en 18 355 zk. faktura jasotzen da, 2.580,93 eurokoa (% 21eko BEZa barne), “Eguneko Zentroko lorazaintzako mantentze-lanak, urriko, azaroko eta abenduako hilabeteei dagozkienak” kontzeptuarekin, eta ondorioz, ez da zegokion ekitaldian aintzatetsia eta onartua izan.

2.- OINARRI JURIDIKOAK

Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 176.1. artikulua “1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituen kargura, soilik aurrekontu-ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen betebeharrak ezar daitezke.

Halaber, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 26. artikulua, zeinaren bidez abenduaren 28ko 39/1998 Legearen seigarren tituluko lehenengo kapitulua garatzen den, Toki-ogasunak arautzen dituen, aurrekontuei dagokienez honakoa ezartzen du:

“1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituen kargura, soilik aurrekontu-ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen betebeharrak ezar daitezke (TOALren 157.1 artikulua).

2. Hala ere, aurreko atalean adierazitakoaz gain, horiek aitortzeko momentuan betebeharrak aplikatuko zaizkie indarreko aurrekontu-kredituei:...

c) Errege Dekretu honen 60.2 artikulua erreferentzia egiten die aurreko ekitaldietatik datozen betebeharrari”.

Aipatutako Errege Dekretuaren 60.2 artikulua ezartzen du erakundearen Udalbatzari dagokiola kredituen judizioz kanpoko onarpena, aurrekontu-zuzkidurarik ez dagoenean, betiere.

Bestalde, azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 50.12 artikulua, zeinaren bidez erregulatzen baita Toki-erakundearen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua, beste funtzio batzuen artean, kredituak judizioz kanpo onartzeko eskumena ematen dio Udalbatzari.

Aurreko guztia kontuan hartuz, idazkari kontu-hartzaile honek EBAZPEN-PROPOSAMENA/TXOSTENA egiten du, dagokion Batzordeari helaraziko zaiona, osoko bilkuran onartu aurretik:

1.- 2/2019 zenbakiko espedientea onartzea, bi faktura hauen kreditua judizioz kanpo onartzekoa, 2019. urtea baino urtebete lehenagoko faktura denez, ordainketa baimentzeko asmoz, horrela Udalaren aberaste bidegabea ekidinez.

➤ 2018ko abenduaren 31ko 18 353 zk. faktura, KASAKU, S. COOP-ena, 2.580,93 eurokoa (gehi % 21eko BEZa); 2019ko aurrekontuko 231.481007 kontu-sailaren kontura ordainduko da.

Horren berri ematen dut, Arespalditzan.- Idazkari- Kontu-hartzailea.”

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, zeinaren bidez Toki-erakundearen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua erregulatzen baita, aurretik ez jakinarazitako gai bati dagokionez, Udalbatzak, lehenengo, proposamenaren urgentziaz eta eztabaidaren jatorriaz hitz egingo du, aho batez hitzartuz bilkura honetan eztabaidatzea.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza, adierazteko agian ohikoa dela baina gehiegizkoa iruditzen zaiola lorategien mantentze-lanen faktura.

Hitz-hartzeak amaiturik, aho batez erabaki da, ohiko bozketan, 2 /2019 zk. espedientea onartzea, adierazitako fakturaren judizioz kanpoko kredituak onartzekoa.

11.- LABek aurkeztutako mozioa, Tubos Reunidos enpresaren lan-egoerari buruzkoa. Jarraian, Udaltzari LABek aurkeztutako mozioaren berri eman zaio, Tubos Reunidos enpresako langileen egoerari buruzkoa. Hau dio:

“AIARAKO UDALARI

Egun, Tubos Reunidos Taldeak 200 milioi euro baino gehiagoko zorrak ditu, eta zor horien jatorriak zerikusirik ez izan arren Amurrioko eta Trapagarango fabriken jarduera eta ekoizpenarekin, langileoi azken hamar urteetan laugarrena izango den aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea aplikatzen hasi dira.

Aurreko esperientzietatik, Tubos Reunidosen langileok badakigu aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente hau ez dela taldeak duen arazo finantzarioarentzako irtenbidea, eta hortaz, beste behin, diru publikoa eta gure langabezia erabiliko dute hitzartuta ez duten lan-malgutasuna lortzeko, gure lan-baldintzak 16 hilabete luzetarako kaskartzuz.

Tubos Reunidos Aiarako eskualdean enplegu gehien sortzen duen enpresetako bat da; enpleguaz hitz egiten dugunean zuzenari buruz zein zeharkakoari buruz dihardugu, eta pentsatzen dugu proiektu industrialik ez dagoenez fabrikaren eta enpleguen etorkizuna oso kezagarria dela.

Hartzen dituzten neurri guztien helburua da langileok ordaintzea haien kudeaketa ezin okerragoa; guk, aldiz, akzionistek inoiz eraman behar ez zuten diru hori fabriketan inbertitzea eskatzen dugu.

Negoziaketetan eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente berriak ezartzeko prozesuan dauden kontratatutako langileoi lehenengo ondorioak heltzen hasi zaizkigu.

Horregatik, LABetik Aiarako Udaleko Udaltzari honako mozio hau helarazten diogu, bertan eztabaidatu eta onartzeko:

MOZIOA

Tubos Reunidosen 16 hilabeteko iraupeneko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea aplikatu nahi duenez, Udaltzari honek honako hau adierazi nahi du:

- Gaitzetsi egiten ditugu Tubos Reunidosen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eta kontratatutakoak.*
- Tubos Reunidos Taldeari eta batez ere akziodun nagusiei eskatzen diegu Amurrioko fabrikaren etorkizunaren aldeko apustua egiteko eta, enpresa egoera honetatik atera dadin, akziodunen aldetik beharrezkoak diren inbertsio ekonomikoak jasotzen dituen bideragarritasun-plan bat aurkezteko.*

Mozioren aldeko txostena egin du Ogasuneko, Funtzio Publikoko, Barne Araudiko eta Kontuetako Berriazko Informazio Batzordeak, 2019ko otsailaren 12an egindako bilkuran.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV), Batzordean adierazi zuen moduan, mozio hau Enpresa Batzordeak aurkeztea gustatuko litzaiekela adierazi du. Amaitu du esanez Amurrioko Udalarekin dituzten bilkuretara ere batuko direla, egoera honen aurrean langileei babesa emateko.

Udaltzari jakinararen gainean dago eta, aho batez erabaki du, ohiko bozketan, LABek aurkeztutako eta hemen transkribatutako mozioa onartzea, Tubos Reunidosen lan-egoeraren ingurukoa.

12.- Honako hauen berri ematea: udal-zenbaketen aktak, gastuen eta diru-sarreraren balantzea, libreten egoera eta 2018ko urriko, azaroko eta abenduak kredituen aldaketak: Udaltzari puntu honi dagokion dokumentazio ekonomikoaren berri eman zaio, zeina zinegotzietan bidali baitaie deialdiarekin batera.

Udaltzari jakitun geratu da.

13.- Kreditu gehigarriaren 1/2019 espedientea.- Jarraian, alkate jaunak Udaltzari jakinarazi dio, presazko arrazoiengatik, osoko bilkuran aztertuko dela kreditu gehigarriaren 1/2019 espedientea, 231.05,32 eurokoa, Luiandoko Barrena kalean Hiri Eraberritze Proiektuaren obrak gauzatzeko, aurreko ekitaldiko Diruzaintzako soberakin likidoarekin finantzatuta, komenigarria baita lehenbailehen gauzatea aipaturiko obra eta aurreko ekitaldian ez baitu denborarik eman.

Udalbatzari 2019ko otsailaren 15eko Kontu Hartzaitzaren txostenaren berri eman zaio, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearekin lotua, Diruzaintzako soberakina kreditu gehigarri bat finantzatzeko erabiltzeagatik, eta data bereko Udalbatzaren erabaki-proposamenaren berri ere eman zaio. Honela dio:

“KONTU HARTZAITZAREN TXOSTENA

GAIA: Aurrekontua aldatzea, gastu orokorretarako Diruzaintzako soberakinaren kargura.

Aiarako Udaleko kontu-hartzaile karguari dagozkion eginkizunen eta 38/2013 Foru Arauan (abenduarien 13koa, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa, 17/2014 Foru Arauak aldatutakoa) diruzaintzako soberakina erabiltzeari buruz sartutako aldaketak direla-eta, soberakinaren kargura kreditu bat aldatzea onetsi ahal izateko beharrezkoa da Kontu Hartzaitzaren txosten bat eramatea Udalbatzara, eta hor jaso egin behar da egonkortasun-helburua ez dela betetzen. Hori dela eta, honako txosten hau bidali da, bi eranskin dituena:

- I. eranskina: soberakina hainbat kreditu gaitzeko erabiltzeko proposamena.
- II. eranskina: Kontu Hartzaitzaren txostena, diruzaintzako soberakinarekin gastuak finantzatzearen bidez egonkortasuna betetzeko.

I. ERANSKINA: SOBERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA

DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 2018ko LIKIDAZIOKO GASTU OROKORRETARAKO: 588.263,66 euro.

ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 231.057,32 €

LUIANDOKO BARRENA KALEAN HIRI-ERABERRITZE PROIEKTUA: APARKALEKUEN HORNIKUNTZA, MUGIKORTASUNA ETA AISIALDIRAKO GUNEA HOBETZEA: 231.057,32 €.

ZENBATEKOA GUZTIRA 231.057,32 €

II. ERANSKINA: IDAZKARITZA KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDOREETARAKO

I. TXOSTENAREN OINARRIA

38/2013 Foru Arauaren (abenduarien 13koa, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa) 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (17/2014 Foru Arauak emandako idazketan), aurrekontu-egonkortasuneko, zor publikoko edo gastu-arauko helburua ez bada betetzen, betetzen ez duen administrazioak Plan Ekonomiko-Finantzario bat egingo du, urte horretan bertan eta hurrengoan helburuak eta gastu-araua bete daitezten.

Foru Arau beraren 7.3 artikulua, berriz, ezartzen du aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeko arrazoia gastuak diruzaintzako soberakinarekin finantzatzea bada, Plan Ekonomiko-Finantzarioaren ordez Kontu Hartzaitzaren eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten bat Udalbatzari helarazi behar zaiola, inguruabar hori jasota, Udalaren finantza-egonkortasunaren azterketarekin eta ebaluazioarekin batera. Hau hartuko du barne, gutxienez:

a) Erakundearen eta haren menpe dauden beste erakunde eta organismoen aurrekontu egonkortasuneko helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen proiektio nagusiak, aintzat hartuta bai joeren bilakaera, hau da, aldaketarik gabeko politikak eta bai kontuan hartutako eperako aurreikusitako neurrien eragina.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektioak zein suposizio nagusitan oinarrituko diren.

d) Aurrekontu- eta finantza-egoerak diruzaintzako soberakina bukatzerako orduan.

e) Izatekotan, inbertsioaren funtzionamenduak zein eragin ekarriko dien gastu arruntei.

Txosten hori kreditua aldatzeko espedientearen zati izango da.

Osoko bilkuraren aktan, Kontu Hartzaitza organoaren txostena eta euskarri moduan erabilitako beste agiriak Arabako Foru Aldundiko tokiko-erakundearen inguruan eskuduna den Sailari bidaliko zaizkio, eta hark, 30 eguneko epean, beharrezko zaion informazio gehigarria eta neurri osagarriak hartzeko eskatu ahal izango du. Horien artean, Plan Ekonomiko-Finantzario bat egiteko eska daiteke, tokiko erakundearen finantza-iraunkortasuna ziurtatzeko. Arabako Foru Aldundiak berariazko ebazpenik egin gabe adierazitako epea igarotzen bada, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da:

EREMU SUBJEKTIBOA:

Txosten honek Aiarako Udalean diruzaintzako soberakina erabiltzearen bidez aurrekontu-aldaketa finantzatzeak eragindako ezegonkortasun-egoera aztertzea du helburu, Aiarako Udaleko diruzaintzako soberakina erabiliz. Haren espedientearen zati bat da txosten hau.

HELBURUAK:

Aurrekontu-aldaketa diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatzeak egonkortasun-printzipioa hausten du, nahiz eta ez-betetze hori ez den egiturazkoa, baizik eta koiunturala.

Horretarako, aurrekontu-magnitudeak aztertu behar dira, eta txosten honen xedea helburu hauek jasotzea da:

- Aurrezki garbi positiboa.
- Diruzaintzako soberakin positiboa.
- Ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den finkatutako zorpetze-maila.
- Finkatutako aurrekontu-egonkortasuna, superabitarekin edo finantzatzeko gaitasunarekin (SEC terminoetan).
- Gastu-araua betetzea.

38/2013 Foru Arauaren (abenduariaren 13koa, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa) 7. artikuluko 3. atalean ezarritakoari jarraikiz (17/2014 FAK emandako idatzian), txosten hau honela egituratuko da:

- 1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen **aurrekontu-egonkortasuneko helburuak** betetzen diren edo ez aztertuko da:
- 2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak.**
- 3.- Inbertsioaren funtzionamenduak zein eragin ekarriko dien gastu arruntei.

II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNERAKO HELBURUAK.

Onetsitako azken likidazioan eskuratutako datuen artean honako datu hauek nabarmentzen ditugu:

MAGNITUDEA	ZENBATEKOA	BETETZEA/EZ-BETETZEA
Doitutako aurrezki garbia	553.209,91 €	POSITIBOA
Diruzaintzako soberakina	588.263,66 €	POSITIBOA
Aurrekontu-emaitza	328.072,03 €	POSITIBOA
Zorpetze-maila	0	
Aurrekontu-egonkortasuna	302.088,60	SUPERABITA. BETETZEA
Gastu-araua	122.672,80 €	-% 4ko BETETZEA

III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK

Epe horretarako Plan Ekonomiko-Finantzarioan zifrak proiektatzeko aukera emango diguten aldagaiak eta neurriak zehazki definitzeko, EGOERA posible hau ezartzen da:

- *Ekonomia-susperraldi bateko egoera batetik abiatzen gara, eta pentsatzen dugu tokiko erakundearen jarduera ekonomikoa mantenduko dela edo apur bat handitu; horrek ekarriko du tokiko diru-sarrerak hobetzea, bereziki TEFFFn parte hartzeagatik lortutakoak, eta zerbitzu publiko gehiago emateagatik.*
- *Gastuei dagokienez, arlo horretako murrizketei eutsiko zaielako egoeratik abiatzen gara, bai langileen gastuetarako eta bai bestelakoetarako. Murrizketa horiek estatuko aurrekontu orokorren egoeraren ondoriozkoak eta aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen ondoriozkoak dira (gastu-araua, gastu-muga, finantza-egonkortasuna eta iraunkortasuna).*

MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.

Abian den ekitaldian eta hurrengoan aztertutako magnitudeen bilakaera hau da:

HELBURUAK	2017	2018
Aurrekontu-egonkortasuna	167.278,99	302.088,60
Egonkortasuna/diru-sarrera ez-finantzarioak (%)	% 7,14	% 12,64
Gastu Araua	81.368,53	-122.672,80
Zorpetzea	0	0
Aurrezki garbia	306.668,44	553.209,91
Aurrezki garbia/diru-sarrera arruntak (%)	% 14,19	% 24,90
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA	550.133,56	588.263,66

IV. AURREKONTU ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINZAKO SOBERAKINA BUKATZERAKO ORDUAN

III-C.1 DIRUZAINZAKO SOBERAKINA.

Diruzaintzako soberakin positiboak epe motzerako erakundearen likidezia metatu osoa erakusten du, garai jakin batean, zeina eskuragarri baitago etorkizun hurbilean gastua finkatzeko.

Doitutako diruzaintzako soberakina, gastu orokorretarako.

Gastu orokorretarako soberakina aurrekontuari aplikatu beharreko hartzekodunen datuekin eta ordaintzeko dauden diru-sarreraren itzultzeekin doitzen da; horrek magnitude horren irudi errealago bat ematen digu.

III-C.2 AURREZKI GARBIA.

Aurrezki garbiak Udalbatzak duen zorpetze-gaitasunaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du gaitasunik epe luzerako mailegu-operazioei aurre egiteko. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzerako mailegu-operazioei aurre egiteko gaitasunaren informazioa ematen digu, eta zenbaterainoko eta zer baldintzatan hitzartu daitezkeen. Baina magnitude horrek erakundearen zorpetze-gaitasunaren informazio fidelagoa eman diezagun, Foru Arauak ezarritakoari jarraikiz kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzateke, hari kenduz ezohiko diru-sarrerak, behin eta berriro sartzen ez direnak.

III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEETAKO ZORRA.

Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak zorpetze handiagiaren ondoriozkoak izan daitezke, horrek finantza-karga handitzea baitakar, zeina, gainerako gastu arruntari gehituta, ezinezkoa baita erakundearen diru-sarrera arruntan bidez xurgatzea, eta, azkenean, aurrezki garbi negatibo bihurtzen da.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.

Aurrekontu-egonkortasunak erakunde baten finantzatzeko gaitasunaren/beharraren berri ematen digu; horrek, zeharka, ekartzen du mugatu edo handitu egiten dela zorpetzea urtero amortizatutakoaren gainetik (SEC 95 terminoetan kalkulatuta). Erakundeak finantzatzeko beharra badu (bere gastu ez-finantzarioak bere diru-sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak badira), horrek dakar erakundeak kanpoko finantzaketa behar izatea (zorpetzea), gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzatzeko gaitasuna badu (bere gastu ez-finantzarioak bere diru-sarrerara ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), hori da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen tartea.

III-C.5 GASTU-ARAUA.

Gastu-araua zerga-arau bat da, eta haren helburua zenba daitekeen gastua mugatzea da, ez dadin handitu ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitakoa baino portzentaje handiagoan. Hala, aurrezki publiko handiagoa lortu ahal izango da, muga bat jarrita gastua diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera egiten ez den gastua handitzeari.

III-D. ZENBAIT MAGNITUDEREN BILAKAERAREN ONDORIOAK

Txosten honetan jasotako suposizioen arabera aztertutako gastuen eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren proiektzioei dagokienez, ondorioztatzen da aurrekontu-aldaketa diruzaintzako soberakinarekin finantzatzekoak ez dakarkiola erakunde honi egiturazko desorekarik, baizik eta desoreka koiunturala, eta berriz beteko dira ezarritako helburuak urtebeteko epean, Plan Ekonomiko-Finantzarario bat egin beharrik gabe.

V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK ZEIN ERAGIN EKARRIKO DIEN GASTU ARRUNTEI.

Datozen ekitaldietarako bildutako proiektzioetan (III.C) zenbatesten da aurrezki arrunt garbi positiboa egongo dela; beraz, gastuaren ondorioz etorkizunean sor litekeen gastu arrunta, kreditu aldaketa honek finantzatu duena, erakundeak sortutako diru-sarrerara arruntek hartuko dute bere gain. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpian dago; beraz, bi datu horiek elkartuta, ondoriozta daiteke haren etorkizuneko finantza-iraunkortasuna ez dela arriskuan jartzen.

Gainera, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek, beren horretan, ez dutela ekarriko gastu arrunta nabarmen handitzea datozen ekitaldietan.

Txosten hau kreditua aldatzeko espedientearen zati bat izango da.

Osoko bilkuraren akta, Kontu Hartzailetzako organoaren txostena eta euskarri moduan erabilitako beste agiriak Arabako Foru Aldundiko tokiko erakundearen inguruan eskuduna den Sailari bidaliko zaizkio, eta hark, 30 eguneko epean, beharrezko zaien informazio gehigarria eta neurri osagarriak hartzea eskatu ahal izango du. Horien artean, Plan Ekonomiko-Finantzarario bat egiteko eska dezake, tokiko erakundearen finantza-iraunkortasuna ziurtatzeko.

“OSOKO BILKURARAKO ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA.- 2018ko likidaziotik eratorritako Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina baliatzeko beharra, adierazitako obra kontratatuzeko gastuen kontu-saila sortzea ekarriko duena, ezin baitu 2019ko urterako aurrekontua onartu arte itxaron.

IKUSI DA.- Organo kontu-hartzaileak aurrekontuaren egonkortasuna ez betetzeari dagokionez mamitutako txostena, abenduaren 13ko 38/2013 FAn jasotakoaren arabera, (Arabako toki entitateen aurrekontuaren egonkortasunari eta finantzaren iraunkortasunari buruzkoa, 17/2014 FAK aldarazitakoa), Udalbatzari aurkeztuko zaiona kreditu-aldaketa honekin batera, jakinaren gainean egon dadin.

AINZAT HARTU DA.- Otsailaren 9ko 3/2002 Foru Arauan jartzen duena, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa; azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan jartzen duena, zeinaren bidez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina eta apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, onartzen diren.

Adierazitako guztiagatik, Aiara Udalbatzak ERABAKI hau hartzea proposatzen du:

Lehenengoa.- Jarraian adierazitako kreditu gehigarria onartzea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA/€
133.601.004	LUIAONDOKO BARRENA KALEAREN HIRI EREMUAREN ERABERRITZE PROIEKTUA	231.057,32 €

GUZTIRA: 231.057,32 €

Orain zerrendatuko diren baliabideekin finantzatuta dago aurrekoa; era horretan, espediente orekatua aurkezten da, defizitik eragin gabe:

A. Areagotuko diren diru-sarreraren partidak edo erabiltzeko den Diruzaintzako soberakina:

<u>Diru-sarreraren partidak</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	DIRUZAINZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	231.057,32 €
	GUZTIRA	231.057,32 €

Onartutako kreditu gehigarrien kopurua horiek finantzatzeko erabiliko diren diru-sarreraren kopuru osoaren berbera da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun baliaduneko epean, interesa duten pertsonak aztertu dezaten eta beharrezkoak diren erreklamazioak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik ez balego erabaki hau behin betikotzat hartzea. Erreklamaziorik balego, erabaki berri bat adostu beharko litzateke horiek onartuz edo baztertuz.”

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, zeinaren bidez Toki-erakundeen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduak erregulatzen diren, aurretik ez jakinarazitako gai bati dagokionez, Udaltzak, lehenengo, proposamenaren urgentziaz eta eztabaidaren jatorriaz hitz egingo du, aho batez hitzartuz bilkura horretan eztabaidatzea.

Josu Artetxe Arana (EH-BILDU) zinegotzi jaunak hartu du hitza, adieraziz ekainean egindako Informazio Batzordean, obra honi dagokionez, zenbatekoa 229.855,17 eurokoa zela adierazi zela eta orain 231.057,32 eurokoa.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ziurrenik Batzordera eraman zena Oinarrizko Proiektua zela eta aurrekontu-aldaketa honetan jada gauzatzeko proiektuaz ari garela; hala ere, egiaztatuko dela esan du.

Udalbatza Kontu Hartzailaretzaren txostenaren jakitun da (2019ko otsailaren 15ekoa), kreditu gehigarri bat finantzatzeko Diruzaintzako soberakina erabiltzeagatik aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen ingurukoa; eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan:

Lehenengoa.- Jarraian adierazitako kreditu gehigarria onartzea:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA /€
133.601.004	LUIAONDOKO BARRENA KALEAREN HIRI EREMUAREN ERABERRITZE PROIEKTUA	231.057,32 €

GUZTIRA: 231.057,32 €

Orain zerrendatuko diren baliabideekin finantzatuta dago aurrekoa; era horretan, espediente orekatuta aurkezten da, defizitik eragin gabe:

B. Areagotuko diren diru-sarreraren partidak edo erabiltzeko den Diruzaintzako soberakina:

<u>Diru-sarreraren partidak</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	231.057,32 €

	GUZTIRA	231.057,32 €
--	---------------	--------------

Onartutako kreditu gehigarrien kopurua horiek finantzatzeko erabiliko diren diru-sarrearen kopuru osoaren berbera da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesa duten pertsonak aztertu dezaten eta beharrezkoak diren erreklamazioak jar ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik ez balego erabaki hau behin-betikotzat hartzea. Erreklamaziorik balego, erabaki berri bat adostu beharko litzateke horiek onartuz edo baztertuz”.

14.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.- Jarraian, Udalbatzari 2019/26tik 2019/81era arteko Alkatetza Dekretuen berri eman zaie, biak barne, eta haien xedearen laburpena hau da:

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/26.- Fundiciones Lombide SL- Administrazio-espedientearen informazio publikorako sarbidea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2019/27.- A.T.G eta J.M.A. - Kexaan etxebizitza eraikitzeako obretarako udal-lizentziaren emakida.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/28. - ATEZAIN LANPOSTUAREN BITARTEKO IZENDAPENARI EUSTEA TITULARRAREN OPORRAK BETETZEKO.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/29. - Menagarai-Beotegiko Adm. Batzordea. - La Blanca bideko eta Iza baserriko zoladura-lanen hondakinen kudeaketagatik fidantza eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/30. - Alday Fundazioa. Eguneko zentroa kudeatzeagatik diru-laguntzaren ordainketa, 2018ko abendua.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/31. - J.G.G.- Eraikina handitzeko lanen hondakinak kudeatzeagatik fidantza eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/32. - Arespalditzako Adm. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/33. – Luiaondoko Magdalena kaleko 2 zk. etxejabeen elkarte.- Obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/34. - Menagarai-Beotegiko Adm. Batzordea. - La Blanca bidea zolatzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/35. - F/2018/20 fakturen kontularitzako zerrenda onartzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/36. - 2018ko ekitaldiko aurrekontua zuzenean luzatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/37. - Alday Fundazioa. 2018ko behin betiko likidazioa erregularizatzea eta gastuak doitzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/38. - F/2018/21 fakturen kontularitzako zerrenda onartzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/39. - Zuhatzako Adm. Batzordea. - Zuhatzako Kontzeju Etxearen eta Gizarte eta Kultura Zentroaren jardueraren garapenaren aldeko onespina.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/40. - Zuhatzako Adm. Batzordea. - Banaketarako udal-lizentziaren esped. dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/41. - M.A.A.A.- Arespalditzan etxolaren estalkia konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/42. - Aluventanas Omar S. Coop. - Industria-pabiloi batean suteen aurkako estaldura-lanetarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/43. - 2019ko urtarrileko txostena onartzea, Udalbatzako kideen ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/44. - 2019ko urtarrileko txostena onartzea, alderdi politikoen ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/45.- J.M.J.A. - Hondakinen kudeaketagatik eta obra-lizentziaren espedientea amaitzeagatik fidantza itzultzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/46. - Olabezaharko Adm. Batzordea.- Uriarteko bidea konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/47. - Kexaako Adm. Batzordea. - Gizarte etxea eta Bolatokia margotzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/48.- J.L.B.G.

- Obretarako udal-lizentziaren esped. dagokionez, agiriak gehitzeko eskatuz.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/49. - Erretes Lantenoko administrazio batzordea. - Obretarako udal-lizentziaren esped. dagokionez, agiriak gehitzeko eskatuz.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/50.- M.C.U.M. - Madarian dagoen eraikinari okupazioko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/51.- M.C.U.M. - Hondakinen kudeaketagatik ordaindutako bermea itzultzeari dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/52. - Langileen eta alkatearen hileko nominen txostena onartzea, 2019ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/53. - Aiarako Kuadrilla. Hirigintzako zor-saldoen ekarpena onartzea, 2018ko urtea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/54.- N.M.G.P. - Erretes Lantenon nekazaritzarako etxolaren estalkia zaharberritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/55.- S.S.D.L. M.L- Obretarako udal-lizentziaren esped. dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/56. – Trmame SA eta Remai SA- 124/17 Dekretua ezeztatzen duen administrazioko esp. etetea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/57.- Enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren gastua onartzea, 2018ko ekitaldia.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/58. - Elkarkidetzari dagokion gastua, erakundearen eta langileen ekarpena, onartzea, 2019ko urtarrila.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/59.- J.A.B.C. - Hirurtekoa aitortzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/60.- S.O.M. - Izorian etxebizitza zaharberritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/61. - Viesgo Energía, SL- Jabetza publikoa okupatzeagatik okupazio-tasaren likidazioa, 2018ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/62. - Ez da baliozkoa testuan akatsa izateagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/63. - A.V.S. - Okupazioko udal-lizentzia ematea eta hondakinak kudeatzeagatik bermea itzultzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/64. -Euskara ikasteko diru-laguntzak ematea, 2018ko deialdia.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/65. - Udal-aurrekontuaren likidazioa onartzea, 2018.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/66.- C.M.S.T. - Biztanleen udal-errolan izen-ematea oker egiteagatik baja-espedientea abiaraztea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/67. - F/2019/1 kontularitzako zerrendan erregistraturiko ordainagiriak onartzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/68.- F. eta E. A. - Luiaondon etxebizitzaren estalkia zaharberritzeko lanetarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/69.- FJ.B.U. - TMIZn salbuespena aitortzea, minusbaliotasuna eta mugikortasun murriztua egiaztatzeagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/70.- L.M.G. - TMIZn hobaria ematea familia ugaria egiaztatzeagatik.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/71.- D.F.A. - PFEZen atxikipena, 2018ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/72.- D.F.A. - BEZen urteko likidazioa, 2018.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/73. - Amurrioko Jabetza Erregistroa. - Hirigintzako txostena, Kexaan dagoen eraikin bati buruzkoa.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/74.- J.G.G. - Eraikuntza berri bitartez usategia handiagotzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/75. - Amurrioko Jabetza Erregistroa. - Beotegin dagoen eraikuntzari buruzko hirigintzako txostenaren berri ematea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/76. - Kexaako Adm. Batzordea. - Hondakinen kudeaketagatik ordaindutako bermea itzultzeari dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/77. - Marañoako Adm. Batzordea. - Hondakinen kudeaketagatik ordaindutako bermea itzultzeari dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/78. - Menagarai-Beotegiko Adm. Batzordea. - Hondakinen kudeaketagatik ordaindutako bermea itzultzeari dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/79. - Kexaako Adm. Batzordea. - “Saneamendu-sareko akatsen konponketa” lanen amaierari dagokionez, agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/80. - M.A.I.L. - Etxebizitzako sukaldea alikatatu eta leihoak eta atea berritzeko obren udal-lizentzia.

ALKATETZA-DEKRETUA – 2019/81. - J.U.H. - Igerilekua egiteko lanetatik eratorritako hondakinen kudeaketagatik ordaindutako bermea itzultzea.

Udalbatza jakitun da.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDAN GEHITU EZ DIREN PREMIAZKO KONTUAK

15.- Martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala.- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak hartu du hitza, eta adierazi du mozio hau eguneko aztergaien zerrendara batuko dela urgentziazko arrazoiak direla medio, erreferentzia egiten dion eguna dela eta.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, zeinaren bidez Toki-erakundeen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduak erregulatzen diren, aurretik ez jakinarazitako gai bati dagokionez, Udalbatzak, lehenengo, proposamenaren urgentziaz eta eztabaidaren jatorriaz hitz egingo du, aho batez hitzartuz bilkura horretan eztabaidatzea.

Alkate jaunak adierazi du Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeko kideei helarazi zitzaizela, eta EH-BILDUK moziolari gehitu zaizkion ekarpenak egin ditu. AIARA BATUZ taldea egindako ekarpenen aldekoa da.

Nerea Goiti Valle (EH-BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza esateko deialdiaren ardatzak argitzen saiatu direla, eta harreman justuago batzuk ezartzeko gizarte-itunaren eskaera jasotzen. Adierazi du grebak sistemari eskatzen diola emakumeak ez esplotatzeko, eta Udala grebara batzeak batu nahi duten beste askori babesa emateko balioko duela.

Martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionalaren adostutako testua honako hau da:

**“ 2019ko MARTXOAREN 8a
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
BIZITZAK ERDIGUNERA!**

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, mugimendu feministak martxoaren 8rako emakumeen lan-etenaldiaren deialdiari eman zion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borroka atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, “Bizitzak Erdigunera!” lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Greba feminista bost ardatzen gainean artikulatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista bizitzako alor guztietan zentratuko da, ordaindutako zein ez-ordaindutako lanetan, kontsumo ereduaren, sexualitatearen, arrazismoan, etab. Euskal gizarteari erantzukizun kolektiboa eskatzen zaio, baita bizitza sostengatzeko gizarte itun bat ere, berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea bermatzeko politika publikoak barne hartu beharko dituen.

Emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere martxoaren 8an emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdiguneari jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

*Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdiguneari jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun **zaintza-lan** hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.*

***Denboraren erabilera** orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezkeen. **Europako Berdintasun Adierazleak** kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.*

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Aiarako Udalak erabaki hauek hartzen ditu, Berdintasun Planeari neurri bezala jasoz:

- *Aiarako Udalak ardura hartzen du berdintasun erreal eta eraginkorra bermatzeko duten politika publikoak burutzeko.*

- *Aiarako Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.*
- *Aiarako Udalak, mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.*

Azkenik, Aiarako Udalak herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik mugimendu feministak martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera”.

Udalbatza jakitun da eta aho batez adostu du, ohiko bozketan, transkribatutako Adierazpen Instituzionala onartzea, idatzita dagoen moduan.

16.- Udal-eraikin publikoak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren lagapena. – Jarraian, alkate jaunak jakinarazi dio Udalbatzari, enpresak emandako presazko arrazoiak direla-eta, Udalbatzari honako erabaki-proposamen hau egin behar diola, deialdiarekin batera igorritako aztergaien zerrendan barne hartu gabe zegoena eta zera dioena:

“IKUSI DA Udalean honako hauek aurkeztutako idatzia: Carlos Villar Galende jaunak, COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresaren izenean eta haren ordezkari diharduela, eta Jordi Tusell Coloma jaunak, ISS FACILITY SERVICES SA enpresaren izenean eta haren ordezkari diharduela; idatzian baimena eman dakien eskatzen dute AIARAKO UDALERRIAN ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua lagatzeko, zeinaren esleipenduna den COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresa, 2016ko irailaren 12ko esleipen-kontratuaren arabera.

IKUSI DA, 2019ko otsailaren 21ean Idazkaritzak txostena jaulki zuela, kontratuaren lagapena gauzatzeko prozedurari eta aplikatzekoa zaion legeriari dagokionez.

Eskatzaileek aurkeztutako espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), Udalbatzak honako erabaki hau hartzeko proposamena egiten du:

LEHENENGOA. Baimentzea AIARAKO UDALERRIAN ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratu-lagapena egitea, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak eskritura publiko bitartez formalizatu beharko dutena.

Ordutik aurrera, lagapen-hartzaileak lagatzaileari dagozkion eskubide eta obligazio oro subrogatuko ditu.

BIGARRENA. Jakinaraztea lagapen-hartzaileari ebazpen hau, eta eskatzea jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hamar lanegunetan, behin betiko bermea eratu izana egiaztatuko duen agiria igor dezala.

HIRUGARRENA. Jakinaraztea lagatzaileari ebazpen hau, eta hark jarritako bermea itzultzea, behin lagapen-hartzaileak bermea eratu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Arespalditzan.- ALKATEA”

2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan erabakitakoari jarraikiz, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duena, deialdiarekin batera igorritako aztergaien zerrendan barne hartu gabeko gaia den aldetik, Udalbatzak, lehenik eta bat, proposamenaren premia eta eztabaidatzeko egokitasuna aztertu du eta aho batez erabaki du horren gaineko eztabaida egitea honako osoko bilkura honetan.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) hartu du hitza eta adierazi du izen-aldaketa besterik ez bada, ez dagoela arazorik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du transkribatutako erabaki-proposamenean jada jasota utzi dela lagapen-hartzaileak, ISS FACILITY SERVICES SAK, lagatzaileari dagozkion eskubide eta obligazio guztiak hartuko dituela, subrogazio bidez.

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez erabaki du, bozketan arrunt bidez, baimena ematea COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresaren AIARAKO UDALERRIAN ERAIKIN PUBLIKOAK

GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua ISS FACILITY SERVICES SA enpresaren alde lagatzeko, transkribatutako erabaki-proposamenean jasotako baldintzekin.

17.- Eskaerak eta galderak.-

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du aurreko bilkuran Esteban Hernando zinegotzi jaunak formulatutako galdera bati erantzuteko, Zandesako espedientearen egoeraren gainekoa. Adierazi du txostena egin dela falta ziren zenbait agiri eskatzeko eta horren gainean dekretu bat egingo dela, Udaltzari jakinaraziko zaiona.

Berebat, alkate jaunak adierazi du oraindik ez dugula jaso Eusko Jaurlaritzaren ebazpena, Tramame-k eta Remail-k jarritako errekursoari dagokionez.

Josu Artetxe Arana jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza eta adierazi du zenbait argibide eman nahi dituela aurreko bilkuran Esteban Hernando zinegotzi jaunak formulatu zuen galdera bat dela eta, bideen seinaleztatze bati buruzkoa. Gaineratu du, honen gainean testu bat landu dutela eta irakurriko dutela; hona hemen edukia:

“Bideak seinaleztatze erabakiari dagokionez:

Beste behin, udal-gobernuak erabaki du bere garaian EH Bilduk proposatu zuen ekimena aldebakarrez bultzatzea – EAJk eta Aiara Batuz taldeak atzera bota zutena, desegokitzen jotzeagatik, hain zuzen ere-. Azpimarratu behar da EH Bilduk bideak seinaleztatzen hasteko proposamena aurkeztu zuela Luiaondo eta Arespalditza bitarteko bide zaharrea eta Zuhatzarekiko balizko loturan, bide zaharrak berreskuratzeko filosofia baliatuta; izan ere, Aldundiarekin horren gaineko elkarrizketak egin ziren eta gastua onartua zegoen Aldundiaren laguntza ekonomikoarekin, jada ontzat eman eta diru-laguntza konprometitua zuena.

Azken osoko bilkuran seinaleztatzeari buruzko gastu baten gaineko galdera egin genuen eta alkateak eman zigun erantzun bakarra izan zen gastu hori haren eskumenekoa zela alkate zen aldetik, bestelako azalpenik eman gabe. Handik egun batzuetara egiaztatu genuen seinaleztatze hori zehazki bide horri dagokiola, haien esanetan hitzez hitz “ibiltzeko ezinezkoa” zena.

Maizegi gertatzen den jarrera salatu nahi dugu hemen, EAJk baliatu ohi dituen jokamoldeak errepikatuko direla pentsarazten digutenak, esate batera, Udaltzari bizkar emanda Luiaondon egindako ekitaldia, Aiara ikuspegi buruz zabalduko bideoa eta beste euskarri batzuk, gaztelekuaren kudeaketa...”

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du gai hauek Batzordean eztabaidatu behar liratekeela erabakirik hartu aurretik, ezen hartutako erabakiak kaudimen juridikoa izan badezake ere, egokiena horiek eztabaidatzea baita. Adierazi du ez diola zuzena irizten gai baten berri zinegotzi batek galdetu duelako izateari. Eta gaineratu du AIARA BATUZ taldearen aldetik nolabaiteko amore-emankortasuna sumatzen dutela eta jarrera kritiko handiagoa dutela faltan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du “EAJk baliatu ohi dituen jokamolde” modura izendatzen duten horren aldean, guztiek ezagutzen dituztela lehenagoko praktikak.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ), bera aipatzeagatik, esan du alde aurretik jakin ez duten gairen bat azaleratu den guztietan adierazi dutela tristea dela kanpotik jakitea, eta beti egin dutela adierazpen hori.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) erantzun du haiek agintean zeudenean etengabeko eraso jasaten zutela honi dagokionez eta beti aurkezten zituztela gaiak Batzordean.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) gogora ekarri du nola eman zieten abisu Malato zuzendariaren ekitaldirako, eta honela ezin daitekeela ibili errepikatu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du aipatu duen ekitaldi horretarako deialdia beste zeinahitarako egindako bera izan zela, nahiz berak ere nahiago zukeen jende gehiago bertaratu izatea.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) azaldu du arazoa ez dela hedapen-moldea, baizik eta ekitaldia planteatzeko modua.

Eta aztertze besterik ez dagoela, alkate-udalburuak bilera amaitutzat eman du arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasota uzteko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi otsailaren hogeita batean.

O.E.

ALKATE - UDALBURUAK

IDAZKARIAK

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.

